

Donostia, 2017ko apirilaren 12a

IDAZKARITZA NAGUSIARI

KONTROL MOZIOA, 2016AN HIRIAN IZANDAKO SEXU ASKATASUNAREN KONTRAKO DELITUEI BURUZKO TXOSTENA DELA ETA

Irabazi Donostia taldearen bozeramaile Amaia Martin Garinek, Udalbatzaren Araudi Organikoko 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkeztu nahi du. Mozioa hil honetako Batzordean 2016an hirian izandako sexu askatasunaren kontrako delituen inguruan aurkeztutako interpelazioaren ondorio da.

JUSTIFIKAZIOA

Batzordean azaldu genuen bezala, joan den martxoaren 27an plazaratu ziren 2016an Donostian izandako delituei buruzko datuak, Ertzaintzako eta Udaltzaingoko arduradunek, Segurtasuneko sailburuordeak eta Donostiako Udaleko Segurtasuneko zinegotziak eta alkateak izandako bileraren ostean.

Aurkeztutako txostenaren arabera, delinkuentzia % 2,44 jaitsi zen Donostian, kopuru erlatibotan, Ertzaintzaren eta Udaltzaingoaren lankidetzari esker. Zoritxarrez, delitu mota batzuek gora egin zuten; horien artean, sexu askatasunaren aurkakoeak (% 9,3 igo ziren).

Gure ikuspuntutik, sexu askatasunaren aurkako delituak % 9,3 areagotu direla ikusita, erakundeetako ordezkariak “zero tolerantzia” mezua adierazi behar zuten batez ere emakumeok pairatu ohi ditugun delitu horien aurka. Eta esan behar zuten lanari ekingo diotela erasoan areagotze hori borrokatzeko.

Zinegotzi ordezkariak batzordean aditzera eman zigunez, bileran halaxe azaldu zuten, baina gero ez zuten behar bezala jaso udal gobernuak bere esku dituen komunikabideetan.

Uste dugu sailburuordearen adierazpenek ez dutela laguntzen indarkeria mota horren aurka borrokan diharduten erakundeen kezka eta lana helarazten; izan ere, argudiatu zuen delitu mota horien artean gehienak “esparru pribatuan” gertatzen direla, eta “baimendu gabeko sexu harremanen” eremuan sartzen direla. Horrek guztiak pentsarazten digu, delitu mota horiek gora eginagatik, ez dela neurri berezirik abiaraziko halakoak prebenitzeko.

Alkateak ere ez zuen esan Ertzaintzaren eta Udaltzaingoaren artean egonkorki ezarri den lankidetzaren horrek modu bereziren batean aurre egingo dienik delitu mota horiei; beste batzuei buruz, ordea, iruzur delituei buruz adibidez (% 14,42 areagotu dira), azaldu zuten Interneten erabilerak zer-nolako ondorioak dituen eta horrelako delituei aurrea hartzeko zer zailtasun dauden eta zer ahalegin egiten ari diren.

Udalaren webgunean agertzen den prentsa oharrean ere, sexu askatasunaren aurkako delituek gora egin dutela besterik ez da esaten, “Ondarearen aurkako arau-haustek” atalaren barruan: *“Gora egin zuten arau-haustek dira lesioak (+13,17%), sexu-askatasunaren aurkako delituak (+9,30%) eta iruzurrak (+14,42%)”*. Horixe da dena.

Webgunean albistearekin batera datorren bideoan ere, ez Segurtasuneko zinegotzi ordezkariak eta ez Segurtasuneko sailburuordeak egiten dute aipamen txikiena ere sexu askatasunaren kontrako delituetan izan den igoeraz. Ez baloraziorik egiten dute datu horren inguruan, ez kezkarik adierazten dute horretaz; soil-soilik, pozik agertzen dira (guk ere bat egiten dugu horrekin), delituek, kopuru erlatibotan, behera egin dutelako 2016an.

Zerbitzu Orokorren Batzordean, Segurtasuneko zinegotzi ordezkariak, interpelazioan galdetzen zenari erantzun beharrean, Udaltzaingoaren eta Ertzaintzaren lana gutxiestea leporatu zigun, nahiz ez guk ez ditugun inola ere zalantzan jartzen kidego horien balioa eta profesionaltasuna. Baina, nolako igoera izan den ikusita (hala ageri da Bilboko eta Gasteizko

delituei buruzko txostenetan ere), uste dugu ezinbestekoa dela Udal Gobernuak neurri zehatzak hartzeko eta haien berri emateko konpromisoa hartzea.

Horrez gain, batzordean galdetu genuen delituei buruzko txostenean zergatik ez den sexuaren arabera banaketarik egin. Zinegotzi ordezkariak erantzun zigun sexu erasoetan agerikoa dela hori, erasotzaileak gizonak eta biktimak emakumeak baitira ia kasuen % 100ean. Hala ere, uste dugu beharrezkoa dela txosten osoa egotea sexuaren arabera bereizia. Euskadik badu berdintasunaren lege bat 2005etik, eta txosten horrek aspaldi behar zuen sexuaren arabera bereizia.

Batzordean adierazi genuen bezala, uste dugu sexu askatasunaren aurkako delituak deuseztatzeko, behar beste ikusarazi behar direla, neurri zehatzak hartzeaz gain, kontuan hartuta gora egin dutela batez ere emakumeoi erasaten diguten delitu horiek.

Hori dela eta, honako interpelazio hau aurkezten dugu:

KONTROL MOZIOA

1. Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Gobernuari, Ertzaintzarekin elkarlanean, azal dezala, uda hasi baino lehen, zer neurri hartuko dituen sexu askatasunaren aurkako delituen igoerari aurre egiteko.
2. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Gobernuari, 2017tik aurrera, delituei buruzko urteko txostenean sexuaren arabera bereizita agertzeko hala erasotzaileak nola biktimak.



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

irabazi
DONOSTIA

Grupo Político IRABAZI DONOSTIA Talde Politikoa

Ijentea, 1, 20003 Donostia / San Sebastián
irabazi@donostia.eus - Tel. 943481717 - www.irabazidonostia.org

Sinadura: Amaia Martin Garin,
Irabazi Donostia udal taldearen bozeramailea.